

Zaborrak



JON ALONSO
IDAZLEA

Zaborrak, hondakinak, zarama, zakarra, lohiak... Euskarak ez ditu eskas sortzen ditugun soberakin gogaikarriak izendatzeko hitzak, ezin esan, hortaz, alde horretatik ongi hornitutako hizkuntza ez dela. Dena beharko da, antza.

Gure auzoan (ni ekialdeko erkidego autonomokoa naiz, kasu) bosgarren edukiontzia jarri zutenean, auzokide batek, dagoeneko jubilatua eta bizitza erdia hondakinaren kudeaketarekin zerikusia duten gaitan ibiliak, destinora iristean hondakinak nahasten zituztela gaztigatu zigun erdi-ahapeka, lagun batzuei. Ez genion erabat sinetsi –ez nion, bederen–, eta gehiegikeria bat zela pentsatzea nahiago izan nuen; bai, gertatuko zen inoiz, igual, litekeena zen batzuetan, baina beti-beti... ez zela sistematikoa izango pentsatu nahi nuen.

EAEko fabrika batean lan egiten duen beste adiskide batek esan zidan lehen-goan (boladako gaia baita mendebaldeko erkidegoan, begi-bistako arrazoiak medio), berak bereizten dituen plastikoa dagoeneko bere sudurraren aurrean nahasten dituela horiek jasotzeaz

Zaldibarko hondamendia eta gero, makina bat gizon inportante irudikatzen ditut, denek erantzukizuna berea ez dela aldarrika bilera gogor-liskartsuetan, denak pagaburuaren bila, denak zikinkeriatik makularik gabe ateratzeko ahaleginetan

arduratzen den enpresa espezializatuak; lehen ere berdin egingo zutela, baina fabrikatik urruti egiteko detailea zaintzen zutela; orain hori ere ez.

Zaldibarko hondamendia eta gero, makina bat gizon inportante irudikatzen ditut (eta emakumeren bat ere bai, gutxiengoan, hori bai), denek erantzukizuna berea ez dela aldarrika bilera gogor-liskartsuetan, denak pagaburuaren

bila, denak zikinkeriatik makularik gabe ateratzeko ahaleginetan: bi langile gutxiago, inori axola al zaio? Ez da zaila imajinatzea hondakin toxikoak eta kutsakorrek merkeago kudeatzeko mesedeen eta eskupeko milioidunen bidezko merkatu beltz bat. Nobela ikaragarria dago hor, informazio pixka bat, imajinarioa eta talentu aski dauzkanaren zain.

Bere oparotasunak sortzen duen kartzan itotzen ari den sozietate bat gara, eta honez gero ez da metafora bat, errealitatea baizik. Sozietate hipokrita bat, arazoaren aurrean ez-ikusiarrena egiten duena, gainera. Joan den legegintzaldian, Gipuzkoako Aldundiak jendeari gai honetan inplikazio pertsonala eskatu ziolarik, badakigu nola bete ziren balkoiak plastikozko poltsez. Enpresa espezializatuak gure kontzientziak garbitzeko balio dute, hondakinak egoki kudeatzeko baino areago. Negozio biribila ba denentzat: haiek alfonbra azpian sartzen dute denon kaka, administrazioak eta enpresariak ederki ordaintzen diete, eta guk ekologistaren kontzientzia lasaiaz egiten dugu lo. ●

